

**Ebazpena: R175/2022**

**Espedientea: 39/2015**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 15ean.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordeak –Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Soffía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osatuak– erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Arabako Foru Aldundiarekiko (aurrerantzean AFA) aurkeztu duen gatazkari buruzkoa. Erabakiaren helburua da zehaztea ea auzi-jartzaileak eskumenik duen BVSAk lan pertsonalarengatik bi langileri 2010ean, zerbitzuak lurralde erkidean emandako egun-kopuruaren proportzioan, egindako atxikipenak ordainarazteko. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da, 39/2015 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

**1.-** BVSA zerga-egoitza Araban duen erakunde bat da, ardoak egiten eta saltzen dituena.

**2.-** Enpresak bi langile ditu: Zaragozako eta Madrilgo lantokietako zuzendari komertzialak, hurrenez hurren. Langile horiek foru-lurraldean eta lurralde erkidean eman dituzte zerbitzuak.

**3.-** Eskumenik gabeko administrazioan diru-sarrera bat egin dela adierazten duen txosten bat egin zuen ZAEAk 2014ko maiatzaren 19an. Txosten horretan, estatuari egozten zaio bi langileek zerbitzuak lurralde erkidean emandako egunei dagozkien lan-etekinen atxikipenen proportzioa.

**4.-** Atxikitzailleak konturako ordainketa horiek AFari sartu zizkionez, ordainketa horiei dagokien kopurua bidaltzeko eskatu zion ZAEAk 2014ko abuztuaren 14an.

**5.-** 2015eko apirilaren 9an, AFAk uko egin zion bidalketari, haren ustez atxikipen-lantokia baita eskumena zehazteko lotune erabakigarria.

**6.-** 2015eko ekainaren 3an, eskumena baliatzeari uzteko errekerimendua egin zion ZAEAk AFari, baina AFAk eskumena zuela berretsi zuen hilabete bereko 30ean.

**7.-** 2015eko uztailaren 28an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen langileek zerbitzuak lurralde erkidean emandako egunei dagozkien atxikipenak ordainarazteko eskumena dela-eta. Gatazka 39/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetu zen.

**8.-** Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta hilabeteko epean hasierako alegazioak eta azken alegazioak egiteko izapideak eskaini dira, hurrenez hurren.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka foru-lurraldean eta lurralde erkidean emandako zerbitzuei dagozkien lan pertsonalagatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zeinena den zehazteko aplikatu behar den lotunearen inguruan dagoen gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; bere eginkizunak hauek direla baitio:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.*

*b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

### 2.- Aplikatu beharreko arauak

Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikulua (horixe da *ratione temporis* aplikatu beharrekoa), hauxe adierazten du 12/2002 Legean biltzen den jatorrizko testuan:

*Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:*

*a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.*

*Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.*

### **3.- ZAEAREN jarrera**

ZAEAREN ustez, atxikipen-zentroaren presuntzioa hutsaldu egin daiteke –*iuris tantum* presuntzioa baita–, langileak zerbitzuak foru-lurraldean eta lurralde erkidean eman dituen egunen kopurua egiaztatuz; eta horrek aukera emango luke zerbitzuak ematen diren lekuaren arau nagusia aplikatzeko.

### **4.- Arbitraje Batzordearen jarrera**

Ekonomia Itunak, zerga-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta estatuaren artean banatzeko ikuspegitik soilik aztertuta, baliabideak administrazio bakarrari esleitzeko irizpide nagusiaren alde egiten du.

Horretarako, hainbat lotunetara jotzen du: ohiko bizilekura eta zerga-egoitzara, zerbitzuak emateko lekura, etab.

Salbuespen gisa, zenbait zergapekori beste irizpide batzuk aplikatzen zaizkie (eragiketa-bolumena eta eragiketa-bolumenaren proportzioa –eragiketak egindako lekuak zehaztua–) eta irizpide horiek ekar dezakete ez zuzena izatea

BEZari, Sozietateen gaineko Zergari eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari (errenta jakin batzuetarako) dagozkion tributu-baliabideak zerga-egoitzaren arabera administrazio bakar bati egoztea.

Horregatik, halako kasuetan eta bestelako atxikipen-kasu batzuetan (adibidez, Ekonomia Ituneko 7.Bat.c eta 9.Bat.Lehena.a artikuluetan aipatzen direnetan), errendimendua bi administrazioei egozten zaie, estatukoari eta foralari, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan.

Hala ere, aipatutako zergetan ere sinplifikazio-arau batera jotzen da etekinak administrazio bakar bati egozteko, eta lotune gisa berriz ere zerga-egoitza aukeratzen da aurreko urtean/ekitaldian Ekonomia Itunean araututako atalasea gainditzen ez duen eragiketa-bolumena izan duten zergapekoentzat.

Horren arabera, eta Ekonomia Itunaren interpretazio sistematiko eta integratzailea eginez –interpretazio hori aplika baitaiteke Kode Zibilaren 3. artikulua ezarritakoaren arabera, izan ere inplizituki hara bidaltzen baikaitu Ekonomia Ituneko 2. Bi artikulua–, Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluko lan pertsonalagatiko etekinen atxikipenak administrazio bati edo besteari egotzi behar zaizkio oso-osorik.

Horregatik, lan-prestazioak egiteko lekuaren irizpidea prestazio horiek lurralde bakar batean –foru-lurraldean edo estatukoan– egiten direnean baino ezin da aplikatu.

Aitzitik, lanak foru-lurraldean nahiz lurralde erkidean egiten direnean, beste bat da aplikatu beharreko arau nagusia.

Halako kasuetarako, Ekonomia Itunak *iusis tantum* presuntzio bat ezartzen du, gatazka ebazteko oinarrizko irizpide gisa balio duena, eta atxikipena langilea atxikita dagoen zentroa dagoen lekuko administrazioari egozten dio.

Hori dela-eta, baztertu egin behar da ZAEAREN asmoa (presuntzioa ezereztea, atxikipenak ordainarazteko eskumena banatzeko funtsarekin berarekin kontraesanean dagoen irizpide bat erabiltzea proposatuz horretarako), adierazi dugun moduan administrazio bakar bati egotzi behar baitzaizkio atxikipenak.

Arbitraje Batzordeak gai horri buruzko iritzia eman zuen 20/2022 Ebazpenean, eta iritzi hori hemen errepikatutzat jotzen da ondorio guztietarako. Bertan, lurralde batean egindako prestazioak erlatibizatu egiten dira, beste lurralde batean emandako prestazio nagusiei dagokienez osagarriak eta noizbehinkakoak direnean. Alabaina, kasu honetan, ez dago egiaztatuta langile batek foru-lurraldean egindako prestazioak, denbora-dimentsioan denbora osoaren % 5era baino iristen ez direnak, osagarriak, noizbehinkakoak eta, azken batean, garrantzirik gabeak direnik langilearen jardueraren zenbaketa orokorrean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

## **ERABAKITZEN DU**

1.- Deklaratzea ZAEAK ez duela eskumenik 2010ean BVSAk Madrilgo eta Zaragozako merkataritza-ordezkariei egindako lan pertsonalarentatik atxikipenak ordainarazteko, lurralde erkidean zerbitzuak eman dituzten egunen kopuruaren proportzioan.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta BVSari jakinaraztea.